

Sinatze ekitaldia

Bai etorkizunari

647 gizarte eragilek euskalduntze bidean neurriak harteko konpromisoa hartu dute

Imanol Murua Uribe / Donostia

EUSKARARI BAI akordioa izenpetuz Euskararen Plan Estrategikoan parte hartzeko konpromisoa hartu zuten atzo, Kontseiluaren eskutik, Euskal Herriko 647 gizarte eragilek.

Erakunde sinatzaileetako ordezkariak banan bana izenpetu zuten agiria atzo eguerdian: 250 gizarte eragile Bilboko Euskaldunan izan ziren, berrehun inguru Donostiako Miramon Parke Teknologikoan eta laurogei inguru Iruñeko Planetarioan zein Miñako Parke Teknologikoan (Araba).

Bai Euskarari akordioa sinatu zutenen artean, ekonomiaren alorreko 185 erakunde nabarmentzen dira: 49 elkargo ofizial, 20 finantza eta aseguru erakunde, lan munduko 30 eragile, merkataritza eta ostalaritzako 17, nekazaritzako 58 eta, azkenik, 11 saltoki handi eta dendak. Besteak beste, komunikabideen eta publizitatearen alorrean 75 erakundek izenpetu dute, hezkuntza alorrean 74k, kirol erakundeen artean 66k eta kultura alorrean 49k.

«Etorkizunarekiko konpromisoa»

Pedro Miguel Etxenikeren hitzekin hasi zen ekitaldia. Munichetik bideo konferentziaz bidalitako mezuan, hizkuntzarekiko konpromisoa nabarmendu zuen Etxenik:



Berrehun gizarte eragileren ordezkariak bete egin zuten Donostiako Miramon Parke Teknologikoaren egoitza.

«Borondate eta iritzi pluraltasun horretatik abiatzen da gaur hartzen ari zireten konpromisoa, eta horrelakoak behar ditu euskarak iraungo badu. Bai, euskarak behar gaitu iraungo badu, eta guk behar dugu euskara geure izaerari, geure nortasunari eutsi nahi badiogu». Hartutako konpromisoa, euskararekiko ez ezik, etorkizunareki-

ko konpromisoa ere badela adierazi zuen zientzialariak.

Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak sinaketa ekitaldiaren osteko hitzaldian esan zuenez, euskararen normalizazioa «denon eginkizuna» dela erakutsi dute gizarte eragileek. «Sektore eta sentsibilitate guztiak eroso garatu ahal izateko», gizarteko iritzien aha-

lik eta pluraltasun handiena jasorik geldituko dela esan zuen. Mendigurenen hitzetan, «geure gizarteari koherentsia eman eta bakezko etorkizuna ziurtatzeko biderik egokienetako bat» da Euskararen Plan Estrategikoa. «Lanean ikusiko dugu elkar berriro» esanez agurtu zituen sinatzaileak Mendigurenek.

Sinatze ekitaldia aldi bere-

an egin zen lau lekuetan, ha- maika eta erdietan hasita. Euskal Herria Irratiko Kike Diez de Ulzurrun eta Reyes Ilintxe- ta izan ziren Iruñean aurkez- le, Bizkaia Irratiko Javi Onaindia eta Dorleta Alberdi Bilbon, Euskadi Irratiko Axun Arozena eta Radio Vito- riako Mikel Oraá Gasteizen, eta ETBko Nerea Iriarte eta Iker Estala Donostian.

agiria

Bai euskarari akordioa

Euskara 2000. urtearen atarira hel- du da. UNESCOren arabera, gaur egun munduan dauden lau mila hiz- kuntza baino gehiagotik mila galdu- ko dira datozen hogeitaz urteetan. Bai Euskarari Akordioan euskara hiru- garren milurtean bizi eta gara dadin gure gizarteak duen erabaki sendoa islatu nahi dugu, izan ere gaur gaur- koz hori bermatu gabe baitago. Horregatik, hamarkada banaka batzuetan burura eraman nahi dugu gaurko erritmoan askozaz epe luzea- goa beharko lukeen eta agian inoiz

burutuko ez litzatekeen prozesua.

Prozesu horren gakoa gizarteko estamendu guztiak bertan inplika- tzean datza. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egindako gonbitari erantzunez, akordio hone- tan Euskal Herriko gizarte-eragile nagusiok euskararen normalizazio osora iristeko dugun prestutasuna jaso dugu, guztiak protagonista izan- go dituen esku-hartze-prozesu ireki batean, eta beharrezko izango diren neurri normalizatzaileak adosteko konpromiso argiarekin.

Bai Euskarari akordioaren puntuak:

1. Euskarak garapen osoa lor dezan bere normalizazioa behin betiko

bideratuko duen prozesu batean esku hartzeko konpromisoa adieraz- ten dugu.

2. Prozesu hori hizkuntz normali- zazioarako Plan Estrategiko bat pres- tatuz eta ezarri burutuko dugu. Horren bitartez hizkuntzaren egoera sektorez sektore eta lurraldez lurral- de aztertuko dugu, maila bakoitzean beharrezko neurri normalizatzaileak finkatuko ditugu, eta horien arabe- ra, plana prestatzen esku hartuko dugun gizarte-eragileok konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezarri.

Konpromisoak hartze hau gizarte- eragile bakoitzaren autonomia erres- petatuz bideratuko da.

Plan Estrategikoaren oinarria Eus- ko Jaurlaritzak onartu berria duen

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izango da Euskal Autonomia Erkide- goan. Era berean, Nafarroako Gober- nuak euskara sustengatzeko eratu- tako egitasmoekin eta Ipar Euskal Herrian, lehenbailehen, gauzatu behar den hizkuntza antolatze-ko plangintzarekiko koherentsia eta osagarritasunean bideratzeko kon- promisoa adierazten dugu.

3. Akordio- eta konpromiso-dina- mika honetan euskal gizarteak bere hizkuntza berreskuratzeko duen borondate garbia islatu nahi da. Era- baki hori gizarte osatzen duten era- gileen esku-hartze zabalaren bitarte- z bideratu ahal izateko Bai Euskarari Akordioa eta ondoren burutuko den konpromiso-prozesua denentzat zabalik daude.